

ZALAPARTA SUKALDEAN IPUINAREKIN EGITEKO JARDUERAK

Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukia

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala: 1., 2., 3. eta 4. blokeak

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena: 1. blokea

NEŠKAK ALA MUTILAK?

Behariko dugun materiala

Eranskinetako irudiak.

Paperezko orriak.

Margoak.

Aurretiazko oharra

Ipuinetako protagonistak sukaldeko tresna batzuk dira. Horietako batzuk mutiltzat joko ditugu eta beste batzuk neskatzat. Ipuina irakurri baino lehen, jolas xume bat egingo dugu, ikusteko zein diren mutilak eta zein neskak. (Itzultzailearen oharra: gaztelaniaz, tresnari dagokion hitzaren artikuluari begiratu diote mutila edo neska den erabakitzeke, baina euskaraz ezin logika horri jarraitu).

Garapena

- Jarri ikasgelan ondo ikusten den leku batean ipuinaren irudiak dituen posterra, irudi horiek lagungarriak izango zaizkizue eta.
- Esan ikasleei sukalde batean bazkalorduan gertatutako ipuin bat kontatzera zoazela. Mahai-tresnak dira ipuinetako protagonistak; batzuk «mutilak» dira eta beste batzuk «neskak». Mutilak zein diren eta neskak zein diren jakiteko, jolas bat egingo dugu.
- Hemen behean duzuen zerrenda erabili, mutilak zein diren eta neskak zein diren ikusteko. Eranskinetako irudiak ere ikus ditzakezue, edo ipuinetako irudiak dituen posterra.

Mutilak	Neskak
Sardexka	Koilara
Platera	Kopa
Edalontzia	Pitxerra
Labana	Ezpain-zapia
Gatzontzia	Aiztoa
Burruntzalia	Burruntzia
Mahai-zapia	Katilua

- Hainbat aldiz errepasatu zerrenda, ikusteko tresnetako zein diren «mutilak» eta zein «neskak».

- Eskatu ikasle bakoitzari tresna zehatz bat marrazteko (tresnak modu proportzionatuan banatu ikasleen artean, tresna guztiak egon daitezen marraztuta) eta margotzeko.
- Bi eremu egin lurrian edo paretan, alde batean «neskak» jartzeko eta beste aldean «mutilak».
- Sukaldeko tresnen marrazkiak prest izatean, haur bakoitza zutitu dadila eta jar dezala bere tresna dagokion eremuan, neska edo mutila den begiratuta; horrela, ondo ulertu duten egiaztatuko duzue.
- Behar beste aldiz errepikatu jolasa, haurrei argi gera dakien tresna bakoitza non kokatzen den. Garrantzitsua da hori, ipuinaren mezua ulertzeko eta gero hausnarketa egin ahal izateko.





IRAKURKETA-FITXA: ZALAPARTA SUKALDEAN

Beharko dugun materiala

Zalaparta sukaldean ipuina ([esteka](#)).

Aurretiazko oharra

Garrantzitsua da aurrez «Neskak ala mutilak?» jarduera eginda izatea, horrela haurrek errazago ulertuko baitute testua.

Garapena

- Irakurri testua, ilustrazioetan oinarrituz, eta egiaztatu denek ondo ulertu dutela ipuinaren mezua.
- Denak batera jarrita, elkarrizketa piztu, ipuinaren edukiarekin lotutako galderak egin; honelakoak, adibidez:
 - Zer gustatu zaizue gehien ipuinetik? Zergatik?
 - Zergatik erabaki zuten «mutilek» mahaitik joatea? Zuen ustez, «neskak» baino garrantzitsuagoak al dira?
 - Lortu al zuten «neskek» bazkaria zerbitzatzea? Nola?
 - Orduan, hain garrantzitsuak al ziren «mutilak»?
- Benetako mundura etorrira, ezagutzen al duzue mutilak neskak baino garrantzitsuagoak sentitzen diren kasurik? Aipatu gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeria-egoerei buruzko adibide xume batzuk, baita emakumea diskriminatzearekin lotutakoren batzuk ere.
- Denok egiten ditugu gauza batzuk ondo; adibidez, korri egin, marraztu, dantzatu..., neska izan edo mutila izan. Azpimarratu neskek eta mutilek gauza berberak egin ditzaketela.
- Besteek ondo egiten dutena baloratzen ikasi behar dugu, ez guk ondo egiten duguna bakarrik.
- Gauzak denen arteko lankidetzarekin eta inplikazioarekin egiten dira ondoen. Lana denon artean egiten dugunean, taldean, orduantxe lortzen ditugu emaitzarik onenak.

ZALAPARTA SUKALDEAN

Egun hartan, sukaldean,
iskanbila sortu zen.
Entzun ongi! Zaudete adi!
Esango dizuet zer gertatu zen!

Zirika zebiltzan sardexka,
edalongtzia eta platera.
Baita labana eta gatzontzia ere.
Denak batera!

"Mahaian, gu gabe,
ez dago bazkaltzerik.
Neskek, gure laguntzarik gabe,
ez daukate ezer egiterik".

Mahai-zapiak, ordea,
denetan argiena izanik,
bazekien hobia zela
denak aritzea elkarrekin.

Labanak moztu egin zuen:
"Ez zabilta batere zuzen.
Garrantzitsuenak gu gara,
eta onartu egin behar dute".

"Onar ezazue behingoz",
esan zien neskei platerak.
"Gu gara ospetsuenak,
eta zuek baino hobek".

Koilarak, buruhandia izatean
asko pentsatzen zuenez,
inor kanpoan utzi gabe,
neska guztiak elkartu zituen.

"Hau barregura!", zioen gatzontziak.
"Bai tuntunak neska hauek!
Nola moztuko dute haragia
labanarik gabe?"

Aldameneko gelan,
urduri zeuden neskak,
baina bazekiten elkarrekin
edozer egin zezaketela.

Katiluak bete zuen
plateraren egitekoa,
eta erretiluan atera zuten
bazkaritan jatekoa.

Ezpain-zapieak, elkartuta,
estali zuten mahaia dotore.
Mahai-zapi polita osatu zuten,
zeuzkana mila kolore.

Bi burruntzik egin zuten
sardexkaren lana.
Lagun minak zirenez,
dena erdibana.

Kopa dotore ederra
haserre zegoen,
jaiegunetan bakarrik
erabiltzen baitzuten.

"Nik hartuko dut bihar
edalongtziaren lekua.
Oso fina naizen arren,
ez naiz batere tuntuna!"

Aiztoak, ahots zorrotzarekin,
hartu zuen parte:
"Basatia naizen arren,
eta dotorea ez banaiz ere,
labana ordezkatzeko dut,
inolako arazorik gabe".

Armairuan ezkutatuta
begiratzen zuten mutilek,
eta harrituta gelditu ziren,
neskak baitziren oso trebe.

"Oker genbiltzan, lagunok",
esan zuen burruntzaliak.
"Neskak ere bizkorrak dira;
ez gara haiek baino hobeak".

Mahai-zapia izan zen
armairutik ateratzen lehena,
eta mahai gainean jarri zen,
beti egin ohi zuen eran.

Pitxerrak besteei deitu,
eta elkartu egin ziren.
Neskak bikainak zirela
aitortu behar zuten.

"Inor ez da garrantzitsuena;
guztiok gara antzeko.
Elkarrekin aritzen bagara,
moldatuko gara hobeto".

Egun hartatik aurrera,
giro ezin hobia dute sukaldean.
Talde bikaina osatzen dute,
eta aritzen dira elkarlanean.

ETXEKO LANAK BANATZEN

Beharko dugun materiala

Jardueren orria.

Margoak (berdeak eta gorriak).

Aurretiazko oharrak

Eranskinetako irudietako bakoitza eginkizun batekin lotuta dago.

Zerrenda honek eginkizunak jardueraren lehen fasean aztertzen lagunduko dizue:

Hortzetako eskuila
Eskuak
Orrazia
Galtzak
Oinetakoak
Janari-platera
Dutxa
Jostailuen saskia
Lapikoa
Plantxa
Erratza
Garbigailua

Hortzak garbitu
Eskuak garbitu
Orraztu
Jantzi
Oinetakoak jantzi
Jan
Dutxatu
Jostailuak txukundu
Bazkaria prestatu
Plantxatu
Erratza pasatu
Arropa garbitu

- Eranskinetako jardueren orrian adierazitakoa bateratzeko unean, bistan da ikasle batzuk beste batzuk baino aurreratuago ibiliko direla arlo hauetako batzuetan; kontuan hartu beharko duzue hori. Helburua da etxeko lan horiek egiten ikasteak daukan garrantziaz konturatzea eta besteek gure alde egiten dutena eskertzea; helburua ez da, inola ere, etxeko lan horietan atzeratuen dabiltzanak estutasunean jartzea.

Garapena

1. fasea

- Esan ozen talde osoari irudi bakoitza zer etxeko lanekin lotuta dagoen. Ondoren, galdetu:
 - Etxeko lan hauetatik zein egin ditzakezue zuek bakarrik? Joan banan-banan errepasatzen eta eskua altxa dezatela erantzuteko. Gehiengoaren erantzunak kontuan hartuz, **borobil berde** batez inguratuko ditugu haien kabuz egin ditzaketen jarduerak (jan, jantzi...).
 - **Borobil gorri** batez inguratuko ditugu haien kabuz egin ezin dituzten jarduerak; hots, haien ordeztatuak beste norbaitek egin beharrekoak (plantxatu, bazkaria prestatu...).

Hausnarketa

- Denak batera jarrita, elkarrizketa bultzatu ikasleen artean, honelako galderak eginuz:

Ideia nagusia: Autonomiaz eta erantzukizunez jokatzea

- Zer dakizue zuek bakarrik egiten?
- Nork erakutsi dizue gauza horiek egiten?
- Nola sentitzen zarete gauza horiek heldu baten laguntzarik gabe egiteko gai zaretela ikustean?
- Zer gauza ezin dituzue egin heldu baten laguntzarik gabe?

Ideia nagusia: Etxeko lanetan berdintasuna lortzea

- Etxeko lan batzuk ezin dituzte beren kabuz egin:
- Nork egiten ditu?

Erantzun gehienetan emakumeak aipatzen badituzte (amak, amonak...), honela bideratu hausnarketa:

- Gizonek zergatik ez dituzte lan horiek egiten? Ezin dute lan horiek egiten ikasi? Zuen ustez, lan batzuk emakumeek egiteko dira eta beste batzuk gizonen egiteko?
- Mutilek eta neskek gauza berberak egin ditzakete? Zer, adibidez?

Ideia nagusia: Besteek gure alde egiten dutena aintzatestea

- Helduak hor ez baleude guri laguntzeko, bazkari eta afariak prestatzeko, arropa garbitzeko...
- Zer gertatuko litzateke?
- Irudietan agertzen ez diren beste zer gauza egiten dituzte helduek gure alde?
- Zer gauza bururatzen zaizkizue? Egin zerrenda bat denen artean.

2. fasea

- Bukatzeko, pentsa dezatela etxeko zer lanetan laguntzen duten, eta adieraz dezatela marrazki baten bidez. Gogorarazi neskek eta mutilek gauza berberak egin ditzakegula, eta adibide gisa marrazkietan jaso dituzten etxeko lanak jarri, neskek eta mutilek berdin-berdin egin baititzakete halako lanak.
- Jarri marrazkiak ikasgelan, ondo ikusten diren leku batean, eta erabili indargarri gisa eduki hau garatzen duten beste jarduera batzuk lantzean.

JARDUERAK

